

JARDUKETA BERRIAK ESKARIAREN KUDEAKETAN

Vitoria-Gasteizko Ura Aurrezteko Plan Integralaren barnean 2004. urtean hasitako lanei jarraipena emanez, 2014-2017 aldian **AMVISAREN Futura Planaren** barnean garatuko diren jarduketak definitzen hasi gara. **Uraren kudeaketa integralean eraginkortasuna** sustatzea du xede nagusi, eta, hainbat sektore kontsumitzaileen esku-hartzean oinarrituta, hiriko kontsumoak murrizteko joerari eustea espero du AMVISAK, bai eta bere zerbitzuak emateko eskaintzen duen informazioa hobetzea eta uraren eta ingurumenaren babesa indartzea ere.

Aurreikusten diren ekintza guztiek jarduketa-ildo hauetakoren bati erantzuten diote:

- Saltoki, industria eta erakundeei zuzendutako aholkularitza teknikoak, beren ur-kudeaketa hobetzeko; instalazioei zuzendutako doako diagnostikoen programari jarraipena ematen zaio berorren barnean.
- Erregistratutako kontsumoen azterketa eta analisiak egitea, berorien ezaugarriak zehazteko eta jarraipena egin ahal izateko.
- Herritarrei zuzendutako informazioa lantzea, hedatzea eta herritarrek sentiberatzea AMVISAREN informazio-elementuen bidez, kanpaina berriak eginez eta udaleko beste arlo batzuekin koordinatuta lan eginez.



Informazio gehiago hemen www.amvisa.org/futura

EGITEN ARI DIREN HORNIKUNTZA-OBRAK

- URA Ur Agentzia, eta Vitoria-Gasteizko Udalaren laguntzarekin, **Abetxukoko oinezkoen pasabidea** hedatzeko lanak egiten ari da, Zadorra ibaiaren gainean. Gaur egun pasabidera sartzeko dagoen ezponda kentzeko eta berria ezartzeko lanak zehazten dira proiektuan, eta ibaiaren ur-edukiera eta etorkizuneko uraldietarako irtenbideak nabarmen hobetuko dira horrela. Lan horiek egiteko, hirira doazen bi hoditeria nagusien ibilbidea berritu eta aldatu behar izan da, 1.200 mm-ko hodiak erabiliz. Obren lizitaziorako aurrekontua 843.000 €-koa izan da.
- Azarotik, **"Albinako" edateko uraren hornidura-linea** berritzen hasi da AMVISA; Arakako araztegitik Gasteizko udalerriko iparraldera bitarteko ingurua hornitzen du urez (Miñao, Miñaogutxia, Erretana, Gamarra Nagusia, Gamarragutxia eta Parke Teknologikoa), bai eta Arratzua-Ubarrundia eta Legutioko zenbait herrigune eta Goiain industrialdea ere. 1940ko urteetako burdinurtu grisezko tutuak berritu dira, 3 km guztira, maiz apur baitzitezkeen eta 500 mm-ko diametroko burdinurtu nodularreko hodiak erabiliz saihestu baitaitezke horrelakoak. Lizitaziorako aurrekontua 1.618.000 €-koa izan da.



Abetxukoko pasabidea hedatzeko lanak

- Joan den abenduan amaitu ziren **Sansomendi auzoko edateko uraren hornidura-sarea** hobetzeko lanak; lan horien lizitaziorako, 1.200.000 €-ko aurrekontua zehaztu zen guztira. Lanak hiru fasetan egin dira, eta 4.500 metro berritu dira guztira hodi bidez, 100, 150 eta 200 mm-ko tutuak erabiliz.

AMVISAK ZILARREZKO BIKAIN ZIURTAGIRIA LORTU DU

Joan den abenduaren 17an, Iñigo Urkullu lehendakariak **Zilarrezko Bikain Ziurtagiria** eman zion AMVISARI; udalerakundeak bere kudeaketa euskara erabiltzeko egin duen ahalegina aitortzen du, bai eta elebitasunaren sustapenean lortu dituen emaitza onak ere.

Enpresaren kudeaketa-kultura eta kalitatea batzen dituen ikuspegiaren emaitza da Bikain Ziurtagiria, eta erakundean euskarak duen erabilera-maila, presentzia eta kudeaketa ebaluatu ondoren ematen da. Euskalit eta Eusko Jaurilaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetza arduratzen dira, hain zuzen, zeregin horretaz.



IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea: info@amvisa-futura.org